

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juan Garitano Irazabal

*Bergara,
Gipuzkoa
(1932)*

Aurkibidea



Biografia



Aranerreka auzoko
Itsasmendi baserrian jaio zen,
hamar anai-arrebatatik
zaharrena. Aita bertakoa zen,
eta ama, berriz, Elgetako
Oleikua baserritik etorritakoa.
Ospitaleko mojekin hasi zen
eskolan, eta dominikoen
seminarioan bukatu zuen
hamabost urterekin.
Hemeretzi urtera arte eskola
partikularrak jaso zituen. Bizi
guztia eman izan du
baserrian. Ardirik ez zuten
etxean, baina Donato
Arrizabalagak, Aizkorriara
bideko Sancti Espiritus
ermitako artzainak, urtero
ematen zuen negua
Itsasmendi baserrian bere
artaldearekin. 35 urte zituela,
Hirumendi esne-ganadu
kooperatibako sortzaileetako
bat izan zen Juan, Bergarako
beste zortzi baserritarrekin
batera. Kooperatibaren
gorabeheren eta baserriko
lanen inguruko hainbat
azalpen ematen ditu.
Begarako Mari Karmen
Gamindezekin ezkondu zen
eta hiru seme-alaba izan
zituzten.

Zintak

BER-307

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2011-01-13
- **Iraupena:** 66 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

BER-308

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2011-01-13
- **Iraupena:** 17 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Ikasketak ospitaleko mojekin eta seminarioan

- **Erref:** BER-307/002
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:01:29. **Bukatu:** 00:03:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Aranarrekan ez zegoen eskolarik, eta ospitaleko mojekin ibili zen eskolan. Seminarioan ibili zen gero. Batxilergoa egin aurretik utzi zuen, 15 urterekin. Bi-hiru urtean Infernukua taberna gainean Tomas Barrenak partikularrak ematen zituen.

2. Neguko eskola, Basterrarekin

- **Erref:** BER-307/005
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:05:10. **Bukatu:** 00:07:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Neguko eskolan ibili zen gero, iluntzean, Basterrarekin. Tomas Barrenarekin eta Don Eliasekin ere ibili zen partikularrean. Elementalean ofizioak ikasten ziren, baina bera ez zen joan. Pinua sartzen ibili zenean, berandutu egiten zitzaion, eta utzi egin zituen eskolok.

3. Esnetarako behiak zituzten

- **Erref:** BER-307/007
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:07:42. **Bukatu:** 00:09:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Etxean zortzi behi zituzten, esnetarako. 80-90 litro. Esnea saltzera ama joaten zen, astoarekin, eta gero arrebak hasi ziren. Hamar anai-arreba ziren, bera zaharrena. Larrañaga gozotegira eramaten zuten esne asko.

4. Neguan artzaina izaten zuten etxean

- **Erref:** BER-307/009
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:10:36. **Bukatu:** 00:12:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Ardirik ez zuten. Artzaina neguan joaten zen, urtariletik apirilera. Bildotsak han jaiotzen ziren, eta Bergaran bertan saltzen zituen gehienak. Lehenengo gaztak bertan egiten zituen. Donato Arrizabalaga zen artzaina, Santo Spiritu ermitakoa bera.

5. Donato artzaina nondik joaten zen Bergarara

- **Erref:** BER-307/010
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:12:30. **Bukatu:** 00:16:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Donato artzaina Brinkolatik etortzen zen Bergarara, ardiekin. Urte batzuetan berak lagundu zion bueltan. Gazta egiten zuen gero, udan. Batzuetan Estebanekin joaten zen Bergarara; alabekin ere joan izan zen. Donatok baserria zuen Zegaraman.

6. Bergaran egoten ziren artzainak

- **Erref:** BER-307/011
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:16:10. **Bukatu:** 00:19:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Begarara joaten ziren artzainak aipatzen ditu: Donato, Segundo (Guardia Zibilak Araian hil zuen, deskuido), Emilio... Santa Marinako zubiaren ezkerraldera ere joaten ziren ardiekin. Sanjoxepera ere bai. Dirutan ordaintzen zuten apopilo egotea, eta San Jose egunean pare bat bildots ere bai; egun horretan gonbidatuak izaten zituzten.

7. 70eko hamarkadara arte joan zen artzaina

- **Erref:** BER-307/012
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:19:46. **Bukatu:** 00:22:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Donato artzaina urte askoan joan zen. Duela 43 urte arte. Oinez eraman zituen beti ardiak. Etxean gaztandegia zuten jarrita. Etxea nolatan erosi zuen aitak, ezkonberritan.

8. Ardi lanak ere ikasi zituen berak

- **Erref:** BER-307/014
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:22:23. **Bukatu:** 00:25:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Artzain lanak ere ikasi zituen berak. Berak Donatorekin egiten zuen lo, ohe berean. Gauez ere laguntzen zion batzuetan. Ardiak etxe ondoan egoten ziren. Elurra egiten zuenean, beheko kondearen pajearekin konpontzen zen, haren larreak erabiltzeko.

9. Idiak prestatu, eta arabarrei saldu

- **Erref:** BER-307/017
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:26:30. **Bukatu:** 00:29:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Idiak ere bazituzten. Bi pare, bat gaztea, prestatu beharrekoa. Gero saldu egiten zituzten; Erramu zapatuko feria ona zen horretarako. Arabarrei saltzen zizkieten.

10. Esnea eta patata saltzen zuten

- **Erref:** BER-307/018
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:29:13. **Bukatu:** 00:32:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Esnetara dedikatzen ziren. Esne suitzarrak izan zituzten lehenengo eta gero holandarrak. Baratzeko gauza askorik ez zuten saltzen. Patata asko jartzen zuten, eta baita saldu ere. Lasagabaster ehun lantegira esnea eramaten zuten, eta hango jabeak granja bat erosi zuen Araban; haren bitartez patata hazia ekartzen zuten Arabatik.

11. Gaztainak ere bazituzten

- **Erref:** BER-307/019
- **Iraupena:** 0:05:09. **Hasi:** 00:32:08. **Bukatu:** 00:37:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Gaztainak ere bazituzten, baina eurenak ez ziren lurretan. Beraien baserriaren jabeak, Azkonak, sartutako gaztainadia zen. Itxiturak alkaziarekin egiten zituzten gaztaina egurrarekin baino gehiago. Urtero joaten ziren gaztainak batzera, bi familia, gurdiaekin. Gurdikada bat baserrira eramaten zuten eta bestea kalera, Satorretxera.

12. Garia eta gari jotea

- **Erref:** BER-307/023
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:40:22. **Bukatu:** 00:43:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Artoa, garia eta patata. Gari asko hartzen zuten. Kupoá zegoen, eta entregatu egin behar izaten zuten; huskeria ordaintzen zieten. Makina zuten garia jotzeko, matxaka, Bergarako Garitano tailerrean egindakoa; txanketearekin ez da asko akordutzen. Aita gari jotén ibiltzen zen etxez etxe, idiekin eta gurdiaekin.

13. Gari jotea eta afari-merienda

- **Erref:** BER-307/025
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:43:53. **Bukatu:** 00:47:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Gari jotén elkarri laguntzen zioten. Azaoak sartu eta atera jende nagusiak egiten zuen; gazteek sabaira altxatzen zituzten. Matxaka eta gero, gari joteko makina etorri zen. Orduan, azaorik egin beharrik ere ez. San Prudentziotik joaten zitzaizkien, idiekin. Gari jotea bukatzean afari-merienda egiten zuten, eta baita mozkortu ere, ardoa edanda.

14. Garia ebakitzeko makinak

- **Erref:** BER-307/026
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:47:45. **Bukatu:** 00:50:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Garai ebakitzea beti makinarekin ezagutu du. Aramaioko kontuak esaten dizkio Kepak. Beraiek zer nolako makina izan zuten. Trilladorak. Makinak nola aldatu ziren.

15. San Martin jaiak, auzoan

- **Erref:** BER-307/028
- **Iraupena:** 0:04:07. **Hasi:** 00:50:48. **Bukatu:** 00:54:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

San Martinak ziren beraien auzoko jaiak, San Martin de Agirre santua Zabaleta baserrian jaio baitzen. Beste batzuek Beasaingoa zela diote. Gonbidatuak izaten zituzten, pazkoa egunean eta San Jose egunean, eta San Martinetan jaiak. Zer izaten zen: erromeria, bolatokia, taberna... soinu jotzailea osintxuarra zen. Ermitarik ez dute auzoan; entzunda dauka santa Ana zela beraien ermita, baina kondeak beretako hartu zuela, bere lurretan zegoelako.

16. Idi apostuak, aizkora eta sega

- **Erref:** BER-307/032
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:57:04. **Bukatu:** 01:00:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Ez ziren idi probatan ibiltzen. Bergaran egiten ziren, frontoi aurrean, Erramu zapatuan eta. Auzoko batzuk bai, ibiltzen ziren. Aizkora ez, baina segan ibiltzen zen. Desafioa egin nahi zioten, eta berak onartu ez. Zelaiak ere bazituzten. 20 hektareatik gora zuten denera. Belarra nola batzen zuten, gurdian.

17. Abereen otorduak eta beraienak

- **Erref:** BER-307/034
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 01:01:43. **Bukatu:** 01:05:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Ganaduari zer ematen zioten jaten: belarra, baba beltza eta artoa. Taloak, morokila eta ogia. Astero egiten zuten labeko sua. Talo esnea. Babarrunak jaten zituzten eguerdietan. Bi txerri hazten zituzten, eta urte guztian zuten urdaia. Postrea. Afaltzeko, porru patatak. Gaztaina egosiak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com